

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Juan Leibar Guridi*

*Arrasate,  
Gipuzkoa  
(1926)*

Aurkibidea



## Biografia



Gesalibar auzoko Elezgarai baserrian jaio zen. Bost urte zituela, Loratoki etxera joan ziren, Ospitaletik gertuago, aitik bertako ortu eta lorak zaintzen zituelako. Aita auzoko Enauzketa (Erenuzketa) baserrikoa zen, eta ama Uribarri auzoko Goiru baserrikoa. Garagartzako auzo-eskolan ikasi zuen seitik hamabi urtera arte. Gero Eskoriatzako Marianistekin ikastera joan zen, Eskoriatzako Bainuetxean. Marianistekin jarraitu zuen urteetan, ikasketak eta irakaskuntza tartekatuz, hamazazpi urtez. Elorrio, Soria, Madril, Igorre, Iruñea, Suiza, Cadiz eta Marokoko seminario, ikastetxe edota unibertsitateetan ikasi edota irakatsi zuen. Pedagogian Lizentziaduna, 29 urterekin Arrasatera itzuli eta Eskola Profesionalean hasi zen lanean. Jose Maria Arizmendiarrietarekin batera TU-Lankide aldizkaria sortu zuten Eskolan. Arrasateko ikastolaren sorreran parte hartu zuen, eta Jose Lekuonarekin elkarlanean Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako herrien monografikoak idatzi zituen, historia, geografia, pertsonaia ezagunak eta abar aztertuz. Jose Maria Arizmendiarrietaren aurrengo biografia idatzi zuen, eta Pedro Biteri Arana (filantropo arrasatearra), eta Angiolillo-rena (Canovas del Castilloren hiltzailea) ere idatziak ditu. Uribarri auzoko Erguin baserriko Mari Lurdes Balzategirekin ezkondu zen. Hiru alaba dituzte.

# Zintak

## ARR-153

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-14
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

## ARR-154

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-14
- **Iraupena:** 38 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

# Pasarteak

## 1. Fidel Castro jaio zen egunekoa

- **Erref:** ARR-153/001
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kirola » Pilota

### Laburpena:

Fidel Castro jaio zen egun berean jaio zen Juanito Leibar ere. 1926ko abuztuaren 13an izan zen hori. Joxe Arriaran munduko txapeldun izan zen pilotari arrasatearra ere egun horretan jaio zen.

### Transkripzioa

-Esango dostazu izena ta apelliduak?

-Nik daukat izena Eugenio Juan Leibar Guridi. Baiña jente guztiek deituten duste Juan edo Juanito. Juanito, lagun artien eta etxien ta beti Juanito. Eugenio izen zan ba neure aitte-ponteko Eugenio zan ta ez zan etorri bautizora, zerien euen, soldaduskan, ta ez zan etorri ta orduen, ba, Juan. Ni jaixo nitzen abuztuen 13en, egun baten Fidel Castro ta ni. Bixok daukou 84 urte ein biher aurten abuztuen 13en. Fidel Castrok eta nik.

-13en ala 18xen?

-13en. Ta Arrasaten beste persona bat dau oso ezaune, da Joxe Arriaran, izen zana kanpeon...

-Pelotaixa?

-Bai, pelotaixe. Neure edadekue ta egun batekuek gara hirurok. Abuztue 13, milla bederetzirehun ta hogeita xeikuek.

-Harek igual eztau jakingo Fidel Castron zera dala.

-Ha izen zan "Campeón de España" ta ondion da "Campeón del mundo de saque libre". Gero desagertu zan hori kanpeonatuoi; "de saque libre" bera "campeón del mundo" geratu zan. Pelotan. "Saque libre", oin ez dau, ez da entzun be eiten. Lenau izen zan Atano III ta horreik "saque libre" eitten auen. Edozein ezkiñatxotik tak. Sakez itten zittuen tanto asko. Atano

"tercero"k, por ejemplo.  
 -Nik ez dot ezautu hori.  
 -Nik bai.  
 -Sake librie zer da?  
 -Sake libre. Oin puntu batetik sakia atara biher da /bida/. Ta lehena, sake librien, ba, atara zeiketzuen horma kontraraiño juan añiketan ta ra! Edo atzetik, edozein lekutatik e, sakie.  
 -Baiña arraiaren atzera...  
 -Arraiaren atzera, hori bai. Baiñe atara sakie edozein puntotik. Ta hori bastante interesantie zan. Ta oin desagertute dau. Horixe da "sake libre".  
 -Ta orduen Joxe hau Arriaran hau izen zan...  
 -Kanpeon geratu zan ta hori ia ez da erabiltzen ta...  
 -Harrezkero ezkutau in zan?  
 -Nik ez dot entzun aspaldixan, pelota sake libre. Baiñe Atano III oso famatue izen zan. Makiñatxo bat partido irabazi zittuen sake libre.  
 -Sakez tanto gehixenak eindda.  
 -"De saque" eitten zittuen tanto gehixenak. Ra!, ezkiñara, ra!, bestaldera, arrimau ondoraiño...

## 2. Aita Santa Agedako lorezain

- **Erref:** ARR-153/002
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:02:37. **Bukatu:** 00:04:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

Aita Gesalibar auzoko Enuzketa (Erenuzketa) baserrikoa zen, eta ama Uribarriko Goiru baserrikoa. Aitak Eibarren eraikuntza lanean jardun zuen, eta gero Santa Agedako ospitaleko lorezaina izan zen. Loretoki izeneko etxea eraiki zuen bertan bizitzeko.

### Transkripzioa

-Ta nunguak zittuan aitta-amak?  
 -Aitta-amak Arrasatekuek, baiña Arrasateko auzue Gesalibarkuek. Aitte izen zan baserritarra, ta ama be baserrikua. Aitte zan Enusketakue ta ama Goirukue. Oso baserri famatue zan Goiru. Uribarrin, Goiru. Ondion han dau baserrixe. Ta gero gure aitte ibili zan soldauskan, ta urten auenien ez auen lanik eta Zerrajeratik juen zan Eibarrera. Eibarren ibili zan lanien konstrukziñuen. Ta gero etorri zan Arrasatera, ta Arrasaten Santa Agedako sanatorixuen monjetan, psikiatrikuen, puesto bat hartu auen jardiñe ta horreik gauzok zaintzeko. Horixe izen zan. Ta ama ba etxekue beti, etxekoandrie. Etxe txikitxo bat ein gauen, kanpoko etxe bat, ta hantxe bizi giñen Santa Agedan. Ondion be hantxe dau etxioi. Etxe bat politta.  
 -Etxe horrek izenik baeukan?  
 -Loretoki. Oin be Loretoki da.

## 3. Elexgarain jaio eta mutikotan Loretokira

- **Erref:** ARR-153/003
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:04:11. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Juanito auzoko parrokia ondoko Elexgarai baserrian jaio eta bizi izan zen sei urtera arte. Loretoki etxe berria senide eta lagun askoren laguntzarekin eraiki zuten. Aitak lorezaintzaz aparte, ospitaleko lan asko egiten zituen.

**Transkripzioa**

-Ta jaixo ziñan Loretoki horretan?

-Ez, ni jaixo nitzen zerien, Elexgarain. Elexgarai ba Santa Agedako parrokiara onduen dauen baserri bat. Oin iñor ez da bizi han, baiña hantxe jaixo nitzen. Bost urterarte o xei urtearte.

-Oseake, orduen zure aitta-amak ezkondu zien Elexgarai horretara?

-Bai, Elexgaraire. Tan han aukien etxe txikitxo bat monjak itxitte, monjan etxie zan ta. Gure aitte enpliaue zan ta hareik itxitzen etxie bizitako hantxe. Baiña bost urte bakarrik. Bost urte. Ta bost urte pasauaz, ba, ein gauen etxe barrira, aitte ta aman konture.

-Elexgarai Santa Agedan euen?

-Bai, bai, parrokiara onduen. Ta etxioi... Etxioi ein zan... Etxe politte da. Ta ha ein zan pariente artien, danak lagundu, bata egurre, bestiek mano de obrere, bestiek diru apurren bat eta holaxe.

-Auzo lanien nolabait, ezta?

-Ba, etxe lana gehixen bet, auzolana be bai apurtxo bat. Auzolana.

-Loretoki orduen.

-Bai. Aitte jardinerue zan ta betik auken etxe inguruen lorak eta. Larrosak eta. Ta gero ortue ta.

-Aitta orduen zan ospitaleko jardinerua.

-Jardinerue. Titulue, jardinerue. Gero beste edozer gauze...

-Danetik eingo eben.

-Bai, danetara. Iketza deskargau, txarrixek hil, ortue zaindu... Danetara.

-Osea ortu eta jardin zain.

-Bai. Baiña kamioi iketza etorten zaien be deskargau, bal-baltz eindde obrero guztiok hantxe. Paliar deskargau ta bal-baltz eindde. Gero monjak merixendie emuten eutsien /emuteutzien/, aparteko merixendie.

**4. Ehunetik gora ikasle gela batean**

- **Erref:** ARR-153/004
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:06:15. **Bukatu:** 00:08:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

**Laburpena:**

<p>Garagartza auzoko eskolan ibili zen, Don Ciriaco Jauregi maisu ospetsuarekin. Sei urtetik 14 urtera bitarteko ehunetik gora neska-mutil zeuden maisu horrekin, gela batean. Juanito eskolan hasita zegoela, errepublikanoek gurutzeak eta doktrina irakastea kendu zituzten eskolatik.</p>

### Transkripzioa

-Ta zu eskolan han ibili ziñan?

-Ni ibilli nitzen Garagartzako eskolan.

-Garagartzako eskolan.

-Bai. Maixue izen zan oso famatue, Don Ciriaco Jauregi. Don Ciriaco Jauregi Arraburu. Don Ciriaco. Ta gu ibilli gitzen eskola baten -oin be han dau eskolie baiñe oin tabernie da- ibilli gitzen ehun ta piko neska-mutil. Neskak eta mutillak.

-Garagartzan? Ehun ta piko?

-Bai. Ehun ta piko. Ehun ta piko. Ta xei urtetik hamalau urtera. Ta danok maixu bateaz.

-Eta gela baten?

-Gela baten, bai. Gela auen eskuadra moduen, eskuadra moduen, ta alde baten auzen neskak eta beste aldien gauzen geu. E? Eskuadra moduen. Ez, nahastute ez gitzen ibiltten neska-mutillak. Neskak alde baten ta mutillak bestaldien. Baiña danok aula baten, sala baten.

-Maixu batekin ehun ikasle?

-Maixu batekin. Ta xei urtetik hamalau urtera. Asike pentsaizu. Ta danok formal e, ez pentsau han oingo moduen mutikuek rebelde edo maixueri zeozer esan edo, joe, errespetu bat! Bueno, formal danok, errespetu haundixaz. Ta ikesi, ba, beste eskolatan ikesten zan moduen. Leiru, "las cuatro reglas" esaten zana, gero, geografia zeozer be bai, kaligrafia, lektura, ta horreik. Ba eskola guztietan ikesten zien gauzak.

-Ta zu zeu be sei urtekin hasi ziñan eskolan?

-Sei urtekin.

-Oseake, sei urtekin, hogeita hamabixan, republikan, ezta?

-Xei urte zan... ba hogeita hamabixan. Orduentxe... ni sartu nitzen ta ondion eskolan krizufijue ta amabirjiñan irudia han auzen. Orduentxe kendu zittuen, e. Horreaz akordetan naz. Ta ia, ba, gero errelijiñue, katezismue-ta ez zan emuten.

## 5. Eskola erdaraz, doktrina euskaraz

- **Erref:** ARR-153/005
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:08:17. **Bukatu:** 00:10:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

### Laburpena:

<p>Nazionalak sartu zirenean berreskuratu zituzten errepublika garaian kendutako doktrina ikastea eta gurutzeak. Doktrina beti euskaraz ikasi zuen. Juanitok ez du abaderik ezagutu eskola barruan, ez Errepublikan ez eta Francoren denboran ere. Garai bietan eskolak erdaraz jaso zituen.</p>

### Transkripzioa

-Gero, gerria agertu zaniene, ta, ba, nazionalak hamen sartu zienien, Francon tropak hemen sartu zienien, ia emuten zan "catecismo" ta.

-Ta atzera kurtziak, ta atzera eta...

-Ifiñi zittuen barrero bai. Ta gero mezetara ta be jueten gitzen domeketan, danok formal mezetara.

-Ta Errepublika garaixan faten ziñein mezetara?  
 -Ez, ez.  
 -Mezetara be ez?  
 -Bai, jueten gitzen, mezetara jueten gitzen, baiñe eskolatik ez. Geure konture. Ta parrokitan auen abare bat, Don Rafael Heriz. Don Rafael. Hori zan, esto, nazionalistie zan. Nazionalistie. Holan, errespetu guztia. Gero desterrauta egon zan. Ta hak emuten uskun /emuteuskun/ dotriñie, esaten zan, e. Katezismue. Badakitzu zela hasitten zan. “-Kristaua al zara? -Bai jauna, kristaua naiz, Jaungoikoari eskerrak.” Horixe akordetan naz lenengoko zeroi. Ta beste gauza asko.  
 -Oseake orduen doktriñia euskeraz?  
 -Dotriñia euskeraz betik. Eskolatik urten hamaiketan eta dotriñara jueten gitzen neska-mutillok. Egunero.  
 -Hori Franco etorri eta gero?  
 -Errepublika denporan be bai.  
 -A, Errepublika denporan be bai doktriñie eitten zebein?  
 -Bai, ta gero Francon denporan eskolan emuten zan, relijiñue ta “catecismo” ta horreik, eskolan emuten zien.  
 -Francon denporan doktriñie euskeraz edo erderaz hartu zebein?  
 -Dana erderaz, erderaz. Bueno, parrokitan mezie ta hori dana euskeraz baiña parrokitan ia ez zan emuten dotriñie, Francon denporan.  
 -Ta doktriñie bera be, abaria faten zan eskolara?  
 -Ez.  
 -Maisuek berak?  
 -Maisuek berak. Francon denporan bai, maisuek berak. Abareik ez zan sartzen. Nik ez dot /eztot/ ezautu abareik eskolan, ez Republika aurrien, ez Republika denporan, ta Francon denporan be ez, eskolara ez zien sartzen. Bai, maixue bera.  
 -Ta zu eskolan hasi ziñanien, ia Republika denporan, eskolak euskeraz edo erderaz hartu zittuein?  
 -Errepublika denporan euskeraz... digo erderaz, dana erderaz! Errepublika denporan be bai. Dana erderaz. Liburu guztiek erderaz.  
 -Ba hemen Arrasaten eskola batzutan euskeraz ikasi ebein.  
 -Ez naz akordetan ni Arrasaten. Baiña Santa Agedan ez.  
 -Abadetxeko eskolan ta.  
 -Santa Agedan ez.  
 -Batzokikuek ikastolan ta...  
 -Garagartzan ez, Garagartzan...  
 -Zuek orduan erderaz jaso zebein?  
 -Erderaz dana, dana erderaz.

## 6. Meza latinez, sermoia euskaraz eta gazteleraz

- **Erref:** ARR-153/006
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:10:39. **Bukatu:** 00:12:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

**Laburpena:**

Eskolako jolas-orduetan erdara erabiltzera behartzen zituzten, baina ez politikagatik, erdaraz egiteko ohitura hartzeagatik baizik. Elizan meza latinez ematen zuten, baina sermoiak euskaraz eta gazteleraz.

**Transkripzioa**

-Guk gauken obligaziñue errekreuen ta urteten gauenien, erderaz ein biher gauen /inbigauen/.

-Zeuen artien be?

-Geure artien obligaziñue, erderaz itteko. Baiñe hori ez zan "por patriotismo ni franquismo" ta. Hori zan, guk dana euskeraz itten gauen kalien, ta ba oittura bat hartzeko erderaz eitteko. Ez zan, politikarik ez auen hor. Nik ondo pentsetan nauen hori. Hori ondo pentsau... Oin beittu ta ondo pentsetan nauen.

-Baiña gero etxian, etxian euskeraz.

-Oin be jueten bazara ingles ikesten kolegixo batera ta dana ingles ta esaten dutsue "bueno, errekreo denporan be ingles e, hamen danok ingles". Inglesak garelako ez baiñe, horixe, ikesi en biher. Guk erderaz ikesi biher gauen /ikesibigauen/, euskeraz ezkiña guztietan, etxien, kalien... esto, eleixan be euskeraz eitten zan e. Gero Francon denporan be euskeraz. Sermoie erdixe euskeraz ta beste erdixe erderaz. O lenengo erderaz, ta gero euskeraz.

-Jente danak entenditteko, ezta?

-Bai, bai, bai. Baiñe zelan orduen mezie-ta latinez esaten zan, dana latinez... sermoie bakarrik euskeraz, edo erderaz. Beste dana, ebanjelixue ta "Dominus Vobiscum" ta meza dana-dana-dana, badakitzu, ni akordetan naz, dana latinez zan. Horixe zan bakarrik euskeraz, sermoie. Euskeraz ala erderaz. Hori beste leku askotan be, Arrasaten, ta Burgosen ta Madrillen be mezie betik latinez izeten zan. Dana latinez.

-Iñok ulerketan eben, zerak, abariek latinez esaten ebena?

-Bueno, ba ba... ez zan... inportantziaik ez auken. Sermoie ondo entzun ezkerro, bestioi, ba, mezie, ba, badakitzu.

-Oin be antzera itxurie.

-Norberak errezau ta...

-Honek oingo aitta santu honek antzea, latinez emutia gure dittuk mezik.

-Bueno, badauz, badauz hortarako ondion, dana latinez eitteko...

**7. Eskoriatzako marianistekin desfilatzen**

- **Erref:** ARR-153/007
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:12:37. **Bukatu:** 00:13:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

**Laburpena:**

<p>Hamabi urtera arte, auzoko eskolan ikasi zuen. Gero Eskoriatzako marianisten eskolara joan zen. "Balneario de los marianistas"en lau urtez ikasi zuen. Gerra denbora zen, eta desfileak egiten zituzten Eskoriatzako parrokiara, Francoren garaipenak ospatzeko.</p>



### Transkripzioa

-Eta, orduen, sei urtetatik hamalau arte eskola horretan ibili ziñan.  
-Ez, hamabi urtera arte.  
-Hamabi urtera arte.  
-Gero Marianiste sartu nitzen, han, Eskoitzan, Eskoitzako kolegixuen. Ta hor egon nitzen lau urte. Oin hori kolegixue desagertute dau. Hori zan balnearixue, Eskoitzako balnearixue. "Balneario de los Marianistas" esaten zana, ta hor zauzen Marianistak.  
-Ta bañuetxien ikasi zebe zuk?  
-Ha zan kolegixue.  
-Marianisten bañuetxia.  
-Bai. Hor lau urte ein nittuen.  
-Lau urte. Eskoriatzan, ezta?  
-Bai.  
-Eta hor be... karo...  
-Dana erderaz. Gerra denporie zan ta, joe, erderaz ta. Gero zeozer baauen, Francon tropak holan, ba, Tarragonara edo sartu ziela, o Bartzelona hartu auela, danok desfile eleixara, Eskoitzako parrokixara. Han "Tadeum" ta iñun dienak kantau ta gero plazara, ta han mitiña plazan. Gu mutikotxuek hamabi, hamahiru ta hamalau urteaz ta, ba, dana aurrera. Holaxe zan.

## 8. Santa Agedako frontea

- **Erref:** ARR-153/008
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:13:56. **Bukatu:** 00:15:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

Gerran, nazionalak Arrasateko herrian zeudela, gorriak egon ziren Santa Agedan zazpi hilabetez. Bonbardaketa asko bizi izan zituen Juanitok. Ospitalea gurutze gorri handi batekin babesten zuten. Eurak ospitaleko sotoetan babesten ziren.

### Transkripzioa

-Nik hara fan aurretik, esango dutsut /esangutzut/ gehixau ondion. Eskoitzan sartu aurretik, hamar urteaz, hamaika urteaz, Santa Agedan... bueno, Santa Agedan gorrixekin gelditu giñen gu, e. Zazpi-zortzi hillebete egon gitzen hamen Arrasaten Francon tropak, hamen Erguiñen ta hamen bertan, hortxe zauen frentia hementxe bistan, Olandixo ta Erguiñen, ta gu Santa Agedan gauzen gorrixekin. Esaten zan orduen "gorrixak". Han auzen nazionalistak. Gehixenak ezaunek, Arrasatekuek edo... Ta gero egon giñen, ba, "en primera linea". Gu bonbardeo ta, guk bonberdeuak be geure gaiñien hartu gauen. Askok ez zan... hillik ez zan egon, e. Zarata asko, baiñe hautse ta burrundarie, baiñe gehixau ez.  
-Ta ospittala be atakau ein euein?  
-Ospittala auen kruz roja haundi bateaz ta defendirute auen, baiñe bonbardeuen bonba batzuk jausi zien ospittalien be. Hor egon zan ospittalien, este, "Desperdicios", oso periodista famoso bat, "Director de la Gaceta del Norte", Bilbokue. Aureliano Lopez Becerra. Ta zoratute moduen, baiñe hortxe sartute fraillien artien egon zan. Hortxe salbau zan, e. Bueno, ta esaten noien. Gero egon gitzen beste hillebete "En medio de los dos

frentes“. Hor Santa Ageda abandonau auenien gorrixek, ta bestiok ezin sartu, egon zan Madril inguruan, ba, abanze bat. “Tropas de choque en Belchite“ edo ez dakit nun izen zien, ba, hau frenetako apurtxo bat. Ta hau gelditu in zan, tropak eta hara bieldu zittuen. Ta gu erdixen zertu giñen, etxetik urtenda, etxetik iges indde. Manikomixo barruen lelengo, ba, hango sotanuetan-ta lo eitteko eta, ba, zelabaitt.

## 9. Mutikoak instrukzioa egiten

- **Erref:** ARR-153/009
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:15:58. **Bukatu:** 00:19:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

Gorriek alde egin eta nazionalak Santa Agedan sartu zirenekoa gogoratzen du. Gero mutikoek instrukzioa egiten zuten, eta desfileak egitera eramaten zituzten kalera, "Flechas y Pelayos" jantziekin.

### Transkripzioa

-Gero, sartu zienien, gero Francon tropok sartu zienien Santa Agedan, ez naz akordetan zela sartu zien. Han tanke bat etorri zan Aramaixotik, ta mutikuek han elexpeien ta kamioi bat eta. Ba, ogixe edo zeozer baakarren ta ogixe emun uskun /emuskun/ ta mutikuek jarri giñen talde bat eta hasi giñen...bueno, esan uskun /esauskun/ esateko “España sí, Rusia no, España sí, Rusia no“. Bueno, ta holakuek. Ta gero, gero ia... Franconak, Franconak giñen. Santa Agedan ez zan egon holan gauze espezialik.

-Eta hor gorrixak nora ein... nora fan zien hortik?

-E?

-Gorrixak hortik nora fan zien?

-Gorrixek hortik fan zien Arrazolara.

-Arrazolara, e?

-Ta gauzela sortu zan... Aramaixoko... hor auen bidie Aramaixotik Bilbora, Aramaixotik Olandixora, holan bidekurtze bat eiñ auen ta hortik manejetan zien Aramaixora etorteko. Generue, ogixe, jentie, lentejak eta iñun dienak hortik etorten zien. Baiñe hori kortau auen abanzien ta automobillek eta bi tanke ta anbulantzia bat be, Santa Agedan, aber Santa Agedatik pasetan zien. Baiña zelan, ezin leikien pasau! Mendirik mendi, ezin leikien. Ta hortxe su emun utsien ta hortxe, hortxe erre zien. Tanke bat hor egon zan urtietan erre kara botata, ta ba hantxe, tanke bat. Bueno, ta gero, Francon denporan, esto... mutikuok instrukziñue ikasi gauen. Hamen egon zan bat, Julio Markaide. Ba hak e, soldauskara juen biherrien, ba, zeozer, kultura apurren bat baauken ta, ha nobixie Santa Agedakue auken ta ha bialdu auen Santa Agedara guri instrukziñue emuten. Ta gero jueten gitzen Mondraguera desfilera, desfile egoten zan. Egurrezko fusillaz ta bixkerrien ta instrukziñuek... soldauk letxe! Soldauk letxe! Jo-ta bueno... Jantzixe be, arkondara kakixa, Reketiek moduen, ta beste batzuk, mordoxko txikitxo bat, falangistak. Haik Falangistak zien, "Flechas". "Flechas y Pelayos". Gu pelayuek giñen, ta bestiok, holan talde txikitxo bat, flechas.

-Falangistak.

-Falangistak, bai. Ta egoten giñen ba zeozer auenien, ba desfilen... edo etorten zan, hilddekoren bat igual, batonbat frentien hilddako bat, eta

bueno, Arrasatera desfilia. Atxabaletako, pasau zanian urtebete, Atxabaleta hartu aiena, Atxabaletara desfilera. Ta mutikutxuek han, hamaika-hamabi urteaz, ra! Fusillokin ta iñun dienokin. Hori holaxe da. Pentsau, oin pentsau eta ezin leike...

-Hori instrukziñoori eskola ordutan hartzen zebein edo...

-Ez, hori eskolatik aparte. Eskoliek ez auken zerikusirik horrekin.

-Ta bihartuta zeunzein fatea?

-Nora?

-Instrukziñora derrigorrez fan biher ziñain?

-Nik uste dot obligaziñue zala e, danok jueten gitzen ta. Aber zein... atzera botatie oso arriskutsue izeten zan ta... aurrera. Guk, hamar-hamabi urteko mutikuek ze ingo dozu /ingo/ ba...

-Eta bixen bittartien hor, Loretoki...

## 10. Aitaren baserrira babes bila

- **Erref:** ARR-153/010
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:19:21. **Bukatu:** 00:23:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

### Laburpena:

Loretoki etxean oiloak eta untxiak zituzten. Ortuan hazitako marrubiak ospitalera saltzen zituzten. Gerra auzora zetorrela eta, Erenuzketa baserrira joan ziren babestera. Han pasatu zuten hilabeteen euren etxea garbitu egin zieten. Arrasateko guduari buruzko azalpenak.

### Transkripzioa

-Etxe horretan ganaurik edo...?

-Ez, ganaurik ez gauken.

-Oillo edo holako...

-Oillo, oillo eta konejuek, baiñe ganaurik eta... Ortue eta mailluki saille gauken galanta, ta ortu txiki bat be bai ta. Maillukixek saltzen zien. Gure aittek eta amak mailluki... eta saltzen zittuen zerera, mojetara, sanatorixora.

-A! Saldu?

-Dirua, dirua atara biher eta. Ezta? Akordetan naz urte baten, ez dakit, berrehun ta berrogeita hamar kilo edo hartu zien, maillukixetan. Holan, espalda baten, e? Ez eizu pentsau. Dana sasi artie zan ta aittak ta amak atxurraz, ba, lanen puruz ba... Ta etxiau zan... guk etxie abandonau in gauken. Akordetan naz e. Egun baten, ba, abanzia atorrela eta, arratsaldeko xeiretan edo, aitte, ama ta lau seme-alaba, hartu eskuen ahal dauena ta hor auen mendira, Enusketara. Ha geraketan zan "un poco" holan "campo neutral" e? Peligro barik. Ta haraxe juen giñen ta zortzi bat egun in gittuen ta gero bajatu giñen sanatorixora. Han segurantza haundixaua euen, han... ba zoroetxietan ez zien sartuko iñor, ezta? Ta hantxe egon giñen. Ta hillebete bat pasau gauken ta barriro Lore Tokira. Ta etxie dana... apurtute ez baiñe dana sakeaute auen. Dana garbittute.

-Zenbat denpora egon ziñain kanpuen?

-E? Hillebete inguru.

-Hillebetien garbittu in otsuein?

-Etxera sartu barik. Etxera... Bilddurra gauken ta.

-Ta topau zeuein dana...

-Han tirue, tirue auen, tiro bixen erdixen. Murugaiñetik, zera, Francon tropak, eta bestaldetik bestaldekuak, ta han ezin geiken ibili. Holaxe.

-Ya. Ta nork sakeau otsuen ba zera?

-Sakeua, ez gauken ezer be ta, zer hartu... Erloju bat, erloju bat auken "Longiness" aitten eskontza-denporakue, ta hantxe ahaztuta itxi ta... Ta, ba, bestela, ba... ez dakit izeraren bat edo zeozer eruengo auen. Baiñe, bestela, etxie ba pinttau auen OHP ta iñun dienak ifini zittuen ta... gorrixek e, gorrixek etorten zien, ba, etxie bisittetan, gabez ba aber zeozer aber harrapetan auen hanka in baiño lehen. Horreik e, hemen Santa Agedan egon zien bi talde. Bat zien honeik, nazionalistak. Arrasatekue, ta beste errelebue, uste dot Legazpikue zala. Baiñe hamen Udalan auzen gorrixek baiñe gorrixek. OHP ta horreik asturianuek ta santanderinuek, horreik ez utsien... nazionalistak zien "como retén, defensa del pueblo", ezta? Ta horreik ez utsien itxitten bajaketan Santa Agedara. Horreik ibiltten zien Udalatik, ta Udalatik Arrasaterutz eta... Egon zan egun bat zartada haundixa urten auena. Pentsetan auen desfile moduen Udalatik Arrasatera sartu biher ziela /biziela/, baiñe hor, hamentxe bertan, ba bertako gauzak die, hamentxe Santa Anan hamentxe, Uribarriko auzuen, trill ein auen, ta zan San Andres egune, ta izugarrizko tiroteue, ta hortxe ebai zan. Frentiok. Ni lelengoko egunetan, ba, lelengo hillebetietan, ba gerria hasi zan juliuen, ezta? Baiñe abuztuen ta zerien, iraillien, ni ninguen mutikotxue tion etxien hamen Uribarrin. Ta gorrixen aldien gingozen ta etorten nitzen Arrasatera, reketiek auzen, soldauak auzen lekura. Ba! Esate baterako, ez auela holan "una línea cortada como frente", baiñe San Andresen egunetik aurrera ya dana itxi zan ta... a tope egon giñen.

## 11. Marianista ikasketak

- **Erref:** ARR-153/012
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:23:32. **Bukatu:** 00:26:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

### Laburpena:

Gerra bukatu zenean Eskoriatzan zegoen. Gogoan du gero egon zen gosetea. Eskoriatzatik Elorriora joan zen nobiziatua egitera. Handik Segoviara bidali zuten eta han ogi zuria jaten zuten egunero. Madrilgo Carabanchelen beste bi urte eman zituen batxilergoa bukatzen.

### Transkripzioa

-Zu, orduen, e... gerria akabau zanian zuk zittuan hamalau urte. Zu zeuntzen, gerria akabau zanian, han Eskoriatzan zeuntzen?

-Eskoitzan, Eskoitzan. Eskoitzan. Gose denporan be Eskoitzan. Guk gosie pasau gauen, e. Bueno, jente guztiek. Hamen epokaik txarrena izen zan, berrogeita... berrogeita bi. "El año cuarenta y dos" esaten zan. "Cuarenta y uno, cuarenta y dos". Bastante... gatzetxuek giñen ta... jan ein biher, baiñe...

-A, eskolarako ez zan egoten nahikua?

-Bai, baiñe... gure aiñe iñoz be ez, e? Hor... baiñe geuk bakarrik ez, e. Beste jente guztiek hamen Arrasaten ta... Gure etxien, Lore Tokin, ondo, ondo suertau zien: solo haundi bat erosi geuen ta aittek eta amak hartzen

auen artue ta patatie, ta ez dakit... ez garixe ez, baiñe.... honeik jan-gauzak. Ta ondo pasetan gauen, e. Artue etxien guk ez gauen... zera, deklarau biherrik. Ta etxien aukien zera, ELMA-ko molinotxo bat, eskuko moliño bat, urunketako ta ba, ba! Ondo, ondo, ondo. Baiña hamen Eskoriatzan ta, estudiantiek-eta gaixki. Seminarixuetan be oso gaixki pasau auen horreik e, "cuarenta y dos". Gero hortik lau urte pasaute Elorrixora juen nintzen. Elorrixon nobiziaue zan. Ta han urtebete ta, ba, ondo, ya ondo bazkaldu ta ondo. Hor urtebete ein nauen.

-A, ta nobiziue ein zebe Elorrixon?

-Elorrixon, bai. Ta gero handik Segoviara, estudixuek jarraiketan. Beste urtebete Segovian. Ta han ya goserik ez auen. Castillan "por lo visto"... Bollo bat emuten uskuen goixien hamarretakue, beste bollo bat eguardixen... eguardixen. Ta beste bollo bat merixendetako, ta beste bollo bat afaltzeko. Boillue ta ba, janarixa, ezta? Baiña ogixa! Ta ogi zurixa! Milagrue zan ha, hamendik urtenda, e. Baiña Castillan "por lo visto" ondo abitzen ta ba! Ez auen holako problemarik. Ta gero juen nintzen hor urtebete ein ta Madrillera.

-Sorian urtebete ta Madrillen?

-Madrillen, Caravanchelen urte bi. Ba estudixuek konpletetako. Ta han akabau gauen batxilleratue. Batxillerato, ha lehenako batxilleratue. Zelan zan? Zazpi urtekue.

## 12. Arratiara maisu

- **Erref:** ARR-153/013
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:29:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

### Laburpena:

<p>Batxilergoa bukatzeko oso zaila zen "Examen de estado" azterketa egin eta gairitu egin zuen. Handik Arratiako Igozera bidali zuten maisu. Organo-jotzailea ere bazen. Igorren Hilario Soroeta abade ospetsua ezagutu zuen.</p>

## 13. Abadea ez zen, maisua bai

- **Erref:** ARR-153/014
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:29:36. **Bukatu:** 00:32:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

### Laburpena:

Juanito ez zen abadetu. Bera maisu hutsa izan zen. "Maestro Nacional" titulua Iruñean atera zuen. Jesus Guridi musikariak egin zion titulurako musika azterketa.

## 14. Arrasateko Eskola Profesional Politeknikora

- **Erref:** ARR-153/024
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:58:16. **Bukatu:** 00:59:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

### Laburpena:

Cadizen urtebete egin eta gero, 29 urte zituela, Arrasatera itzuli eta Eskola Profesionalean hasi zen lanean, "Don Jose María"rekin. Juanitok eskolaren izena aldatu zuen, Eskola Profesional Politeknikoa jarritz.

## 15. Juanitoren etxean beata bat

- **Erref:** ARR-153/026
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:01:49. **Bukatu:** 01:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

### Laburpena:

<p>Juanitoren amaginarrebaren izeba Klara Ezkurra, Erguin baserrikoa bera, gerra denboran hil zuten, eta Aita Santuak beata egin zuen. Gaur egun Aretxabaleta eta Arrasateren artean bost dohatsu (beato) dituzte.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2025-06-07*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - [ahotsak@ahotsak.com](mailto:ahotsak@ahotsak.com)